

ZENBAIT BURUTAZIO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN GUTUN BATZUEI BURUZ

1990. urtean Joseba Erkiziak Donostiako Lan Soziaierako Unibertsitate-Eskoiari gizarte lanaren euskarari buruz emandako itzaldi batean (ikus ZERBITZUAN 20-21), eta administrazio publikoak bidaltzen dituen gutunei buruzko hizkera-mota dela eta, adibide gisa jarri zuen gutun bati buruzko gogoeta batzu aurkeztu nahi ditut. Artikulu honetan maiz galderak egingo dira, beraien zenbait erantzun aski ezagunak badira ere.

Hasi aurretik bi galdera bota nahi nituzke.

Zein ezaugarri izan behar ditu mezu batek *hizkuntz ekintza* (zuzena gramatika ikuspegitik baina agian ulergaitza) izan ordez, *ekintza komunikatibo* izan dadin (zuzena gramatika ikuspegitik eta hartzaileak ulertua izan dena)? Zergatik bihurtu dira ia beti honako testu hauek *ekintza burokratiko*? Hau da, testu elebidunak inork gutxik euskaraz irakurtzen dituenak.

1. KOMUNIKAZIO KONTZEPTUA AZTER- TZEKO ZERGATIA

Arestian aipatutako hitzaldian honako adibidea aurkeztu zigun Joseba Erkiziak:

Foru Aldundiak balizko programa bat kaleratu du gurasoek seme-alabak haurtzaindegira eramateko diru laguntza eskainiz. Jarraian aurkezten den gutuna dirulaguntza ematea adierazteko bidalitakoa da.

«Honen bitartez, beren kargura adin gutxiko seme-alabak dituzten familientzako laguntzak emateko Oinarriak onartzen dituzten ekainaren leko 1345/1990 Foru Aginduan xedatutakoaren arabera, eta 90/10/1 Oeko zure eskaera

azterturik, jakinerazten dizut Osasun eta Gizarte Ongizate Departamentu honen prestazio ekonomiko bat ematea erabaki duela programa horren kargura.

Prestazioaren zenbatekoa, Haurtzaindegira joateko laguntza gisa, 120.000 pezetakoa da ekitaldi honetarako ordainketa hileroko 10.000 pezetan pagatuz egingo delarik dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.»

«Por la presente, de acuerdo con lo dispuesto en la Orden Foral 1345/1990, de 1 de junio, por la que se aprueban las Bases para la concesión de ayudas a familias con menores a su cargo, y analizada su solicitud de fecha 10/10/

90, le comunico la concesion, por parte de este Departamento de Salud y Bienestar Social, de una prestación económica con cargo a dicho programa.

El importe de la prestación, en concepto de ayuda para asistencia a Guardería, es de 120.000 pts. para este ejercicio, a abonar previa presentación de la documentación correspondiente, mensualmente a razón de 10.000 pts. a/mes.»

Gutun hauek komunikatiboak al dira? Norentzat? Igorleak izan al ditu kontutan hartzaileak, gurasoak? Azken batean, honelako gutunak idazten eta euskaratzen ditugunean, beraien helburu komunikatiboa izaten al dugu kontutan?

Eta Pernandokeria baldin bada ere, ezinbestekoa dirudi hasieratik honako galdera hauek itauntzea: zer da komunikazioa? Zein dira testuaren ezaugarriak? Berarek nola erabili behar dira testu bat ekintza komunikatibo izan dadin?

Komunikazioa eraginkorra da berarekin lortu nahi dugun efektoa erdiesten denean. Eta arestian aurkeztutako adibidearekin, zein efekto komunikatibo lortzen da?

Zein helburu daukagu halako testuak euskaratzen edo eta euskaraz sortzen ditugunean? Hizkuntz normalakuntzarako arau burokratikoak betetzea baldin bada, goiko gutuna legezkoa da. Baina komunikatibo—Gizarte Ongizate Departamentura jotzen duten hiritar ia gehienentzat behintzat— ez dirudi oso komunikatibo denik.

Xedea euskararen erabilpena zabaltzea baldin bada, ziur aski aurkako efektoa lortu ohi dugu, honelako testuak hizkuntz ekintzak izateaz gain ekintza burokratiko soilik bihurtu baitira.

Informazioaren tratamenduaz, hizkuntzaren erregistro eta barietateaz; itzulpen-gintzaz eta jatorriz euskaraz sortutako testuez mintzo gintezke. Baina oraingoan testuon komunikazio gaitazunaz arituko gara.

Jarraian komunikazioaren ezaugarri batzuk aztertuko dira.

2. KOMUNIKAZIOAREN ZENBAIT EZAUGARRI

Zein dira komunikazio hitzaren erabilte ezberdinek batera dauzkaten ezaugarriak? Honako hauek aztertuko dira: Komunikatu harremanetan jartzea da, informatzea, batzea eta arauak jakineraztea.

2.1. Komunikatu/Harremanetan jarri

Orohar, komunikatu aditza erabiltzen dugu lekuaren edo/eta denboraren poderioz banatuak dauden gauza, gertakizun edo eta pertsona ezberdinak harremanetan jartzen direnean.

Baina esan genezake hasierako gutunaren bidez euskaraz harremanetan jarri garenik?

2.2. Komunikatu/Informatu

Harremanetan sortzen denean mezua baldin badago, informazioa igorri dela esango dugu. Hau da, inork inori zerbaiten berri (egoera, erabaki, nahi, behar, ezagutza...) eman diola edo eta jakinaren gainean jarri duela. Honek adierazten digu mezua nolabaiteko arreta sortu eta mantendu behar duela.

Eta hasierako gutunarekin jarraiki, zein jokabide mota sor dezake era horretan idatzita dagoen testu batek? Egun behintzat euskaraz alfabetatua dauden gehienak harrituta geratuko dira hasierako parrafo horrekin. Eta Gizarte Ongizate Departamentu batetara jotzen dutenen artean? Irakurleak arretari nekez eutsiko dio.

Hemen beste bi kontzeptu berri aztertu behar ditugu. Zer da informatzea, berri ematea? Eta zer komunikatzea?

Informazioaren zenbait teoria mezuen transmizioaren modua aztertzen saiatzen dira, mamiari jaramonik egin gabe. Sortzen den galdera hau da: zein eragozpen ditugu euskaraz informazioa igortzeko? Eta gizarte ongizate lanetan?

Komunikazioaren teoriak, ordea, igorleaz, hartzaileaz eta bere testuinguruan ematen den mezuz eta, ondorioz, adieraziaz arduratzen da. Galdera hau da: gutuna zergatik ez da ulergarri euskaldun gehienentzat? Analfabeto asko dagoelako eta ohitura ezagatik soilik? Edo eta horretaz gain, testu mota hauen bidez gaztelarara jotzeko ohitura indartu dugulako?

KOMUNIKAZIOARI BURUZKO KONTZEPTUAK

Beraz da, hasierako gutunera itzuliz, esan dezakegu informatzeko eragozpenak ditugula, zeren eta testua zuzen dago baina informazioa ez da ondo jasotzen. Irakurleak (gehienetan euskaraz irakurtzeko eragozpenak dituena) eskutitza euskaraz irakurtzeko izan dezakeen ezbaia gutxitu ordez ugaltzen baitaio.

2.3. Komunikatu/Batu

Komunikazioa interakzio soziala da. Komunitate baten kide guztiak sinbolo, ohi-tura sozial eta kulturalaz osatutako ondare baten bidez elkarren artean hantatuak daude. Ondare hori konpartitzen dute eta berauez baliatzen dira harreman sozialak mantendu eta mota berriak sortzeko, identitate eta helburu berriak sortzeko. Azken batean, batzeko.

Noiz eta zein ailaratan lortzen dugu interakzio soziala euskararen bidez? Beharrezkoa al da euskara aipatutakoa gertatzeko?

2.4. Komunikatu/Arauk jakinerazi

Komunitatea izateko komunikazioa ezinbestekoa da. Gizakiek komunitate bat osatzeko beharrezkoa dute edozein komunikazio sistemen bidez elkarri komunitatearen arauak adieraztea. Komunitate batek arau batzuk ditu eta ezinbestekoa da berauek kide berriari jakineraztea.

Arestian esandakoarekin jarraiki, egun euskara jakitea ezinbestekoa al da komunitate honetako kide izateko? Euskaldunen artean ez al ditugu maiz arauak kide berriei espainolez jakinarazten berauek maiz euskaldunak izaki? Gizarte Ongizateko programak etab. ezagutarazteko euskara erabiltzen al da? Euskaratutako lege eta arauak, prospektu eta gutunek balio al dute, komunikatiboak al dira, igorri nahi den mezua jabe egiteko?

3. AMAITZEKO

Joseba Erkiziak aurkeztu dituen testuetara itzuliz, hona hemen berak proposatu duen testu alternatiboa:

Honen bitartez jakinerazten dizut zuri dirulaguntza bat ematea arabaki duela Osasun eta Gizarte Ongizate Departamentu honek.

Dirulaguntza hau seme/alaba Haurtzaindegira joateko ematen zaizu eta 120.000 pezetakoa izango da aurten-gorako. Hortaz, hilerio 10.000 pezeta ordainduko zaizkizu dagokion dokumentazioa zuk aurkeztu ondoren.

Dirulaguntza 90/10/10ean aurkeztu zenuen eskaera aztertu ondoren eman zaizu, ekainaren leku 1.345 Foru Agintuaren arabera, honek onartu baizituen adin gutxiko seme-alabak beren kargura dituzten familiei laguntzeko Oinarriak.

Beronen azterketa xume bat eginez, iruditzen zait Erkiziak hartzailea helburutzat izan duela, informazioa aurkezteko era eta hizkuntz erregistroak zaindu baititu.

Hasteko, informazioa emateko eragatik, gutunaren jasotzailearen ezbaia (dirulaguntza emango dioten ala ez sortutakoa) lehenengo parrafoan argitzen diotelako. Bigarren parrafoan zenbateko laguntza jasoko duen adierazten zaio. Hizkera-motari dagokionez, bi parrafotan euskara arrunta erabiltzen da.

Eta hirugarren parrafoan, ordea, arau legalak hizkera espezifikoan agertzen dira, hau da, euskaldun gehienontzat euskaraz irakurtzea nekeza gertatzen zaiguna eta, ondorioz, gazteleraz irakurriko duguna.

Horrexegatik uste dut erabat komunikakorra dela Erkiziaren proposamena: testu honen helburua, gurasoen jakin-mina asetzea, hasieratik bereganatzen delako.

Ion Mendizabal